## NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA SAILA

## 6183

185/2007 DEKRETUA, urriaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreko arlo zientifiko-teknologikoan eta enpresa-arloan, ikertzaile eta teknologo gazteak prestatzeko laguntzei buruzkoa.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak badaki garrantzitsua dela teknikariak gaitzea Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreko ikerketa, garapen eta berrikuntzaren arloan bai alderdi teknologikoei dagokienez bai merkatuei, marketing-ari eta enpresa-antolakuntzari dagokienez proposatutako helburuak lortzeko.

Dekretu honek gaikuntza bultzatze aldera aurreko ekitaldietan hasi den bidearekin aurrera jarraitzeko Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak Teknologiaren Berrikuntza eta Garapeneko Zuzendaritzaren bidez ezarri dituen laguntza-programen esparru generikoa finkatzen du. Dekretu berri honetan, besteak beste, berrikuntza garrantzitsu bat egin da: dekretua prestatzen ari diren ikertzaileen estatutura egokitu da; ikertzaile gazteentzako laguntzen kasuan, aldaketa nabarmenak jasotzen ditu (estatutu hori urtarrilaren 27ko 63/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen).

Prestakuntza-ekintza hauen bidez, batetik, teknologia- eta ikerketa-zentroetan funtsean ikerketa eta garapen teknologikoko jarduerak egiteko langileak espezializatu nahi dira, sektorerako interes handikoak diren eta etorkizuna duten lehentasunezko ildoetan ikerketa-taldeak finkatzeko beharrari erantzuna emateko; eta, bestetik, teknologoak gaitu nahi dira sektoreko enpresetan, nagusiki garapen teknologikoko eta enpresa-berrikuntzako arloetan. Horrela, enpresetan teknologoak barneratzea bultzatu nahi da, sektorea teknologia berrietara hurbil dadin eta, era berean, ingurune berritzailea sortu eta, hala, enpresen arteko lehia handi dadin.

Bestalde, dekretu honek, berdintasunaren helburua kontuan hartuta, teknologiarekin eta ezagutzarekin zerikusi handia duten puntako sektoreetan kantitateari dagokionez emakumeen eta gizonen artean dagoen desberdintasuna murrizten lagundu nahi du, emakumeen parte-hartzea handituta.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin bat etorriz eta Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 19.etik 22.era bitar-

## DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA, PESCA Y ALIMENTACIÓN

## 6183

DECRETO 185/2007, de 23 de octubre, de ayudas de formación a jóvenes investigadores y tecnólogos en el entorno científico-tecnológico y empresarial del sector agropesquero y alimentario vasco.

El Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación es consciente de la importancia de la cualificación del personal técnico para alcanzar los objetivos propuestos en materia de investigación, desarrollo e innovación del sector agropesquero y alimentario vasco tanto en aspectos tecnológicos como en los relacionados con mercados, marketing y organización empresarial.

El presente Decreto establece el marco genérico de los programas de ayudas mediante los que el Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación, a través de su Dirección de Innovación y Desarrollo Tecnológico, pretende continuar la trayectoria de fomento de dicha cualificación que ha venido siguiendo en ejercicios anteriores. Con este nuevo decreto se trata de recoger, entre otras, una importante novedad como la de adecuación al Estatuto del Personal Investigador en Formación, aprobado por Real Decreto 63/2006, de 27 de enero, que para el caso de las ayudas a jóvenes investigadores incorpora una serie de relevantes cambios.

Mediante estas acciones de formación se pretende, por un lado, la especialización de personal científico destinado a la realización de actividades fundamentalmente de investigación y desarrollo tecnológico en los centros tecnológicos y de investigación, tratando de dar respuesta a la necesidad de consolidar grupos de investigación en aquellas líneas prioritarias consideradas de máximo interés para el sector y que presenten una proyección hacia el futuro, y por otro lado, la cualificación de tecnólogos en las empresas del sector en áreas principalmente de desarrollo tecnológico e innovación empresarial. De esta forma se quiere potenciar la incorporación a las empresas de tecnólogos y tecnólogas que faciliten el acercamiento del sector a las nuevas tecnologías y al mismo tiempo favorezcan un entorno innovador que puede traducirse en un aumento de la competitividad empresarial.

Por otro lado, este Decreto, teniendo en cuenta el objetivo de igualdad, pretende contribuir a disminuir la desigualdad cuantitativa entre mujeres y hombres en sectores punta con alto componente tecnológico y de conocimiento, aumentando la participación de las mujeres.

El Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación ha elaborado el presente Decreto de acuerdo con el Departamento de Educación, Universidades e Investigación, y teniendo en cuenta lo dispuesto en los artí-

teko artikuluetan jasotakoa kontuan hartuta egin du dekretu hau.

Hori dela bide, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuak proposaturik eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2007ko urriaren 23an egindako bilkuran eztabaidatu eta onetsi ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*1. artikulua.–* Xedea.

1.– Dekretu honek Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, elikadura eta arrantzaren sektoreetako arlo zientifiko-teknologikoetan eta merkatuekin, marketing-arekin eta enpresa-antolakuntzarekin zerikusia duten arloetan ikertzaile eta teknologo gazteen prestakuntza sustatzera bideratutako laguntzen esparrua ezartzea eta arautzea du helburu.

2.– Prestakuntzarako laguntza hauek tituludun gazteei Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektorerako lehentasunezko gaietan gaitzen eta espezializatzen lagunduko diete, doktorego-tesiak eginda edo ikerketa, garapen teknologiko eta berrikuntzako proiektu bat eginda. Bi laguntza-programa ezarri dira:

A) Prestatzen ari diren ikertzaile gazteentzako laguntza-programa.

B) Prestatzen ari diren teknologo gazteentzako laguntza-programa.

Laguntza-eskatzaileak bi programatan parte hartu ahal izango du. Hala ere, ematen zaion laguntza horietako bakarra garatzeko baino ez da izango.

3.– Laguntzen xede den proiektua, edonola ere, ondoren aipatzen diren erakundeekin elkarlanean garatuko da:

a) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko teknologia- edo ikerketa-zentroak, beste teknologia- edo ikerketa-zentro batzuk eta unibertsitateak.

b) Nekazaritza, elikadura edo arrantzaren sektorean diharduten eta Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden enpresak edo elkarteak, betiere, aipatu arloetan berrikuntzako prozesu bati ekin nahi badiote, lehendik hasita zegoen berrikuntzako bidea indartu nahi badute edo berrikuntzako jarduera berrien sorkuntza bultzatu nahi badute.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, elikadura eta arrantzaren sektorean aplikatu beharreko teknologiak diseinatzea eta garatzea helburu duten enpresak.

4.– Laguntzen onuradunek tutorea izango dute. Honek ikerketa, garapen teknologiko edo berrikuntzako proiektuaren garapena edo, hala badagokio, doktoregotesiaren burutzapena gainbegiratuko du eta onuradunak gauzatu beharreko jarduerak zuzenduko ditu.

culos 19 a 22 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 23 de octubre de 2007,

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Objeto.

1.– El presente Decreto tiene por objeto establecer y regular el marco de las ayudas dirigidas a fomentar la formación de jóvenes investigadores y tecnólogos en áreas científico-tecnológicas, mercados, marketing y organización empresarial de los sectores agrario, alimentario y pesquero de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.– La concesión de estas ayudas de formación tendrán por objeto facilitar, mediante la realización de tesis doctorales o del desarrollo de un proyecto de investigación, desarrollo tecnológico e innovación, la cualificación y especialización de jóvenes titulados en temas prioritarios para el sector agropesquero y alimentario vasco, estableciéndose dos programas de ayudas:

A) Programa de ayudas a jóvenes investigadores en formación.

B) Programa de ayudas de Formación de Jóvenes Tecnólogos.

La persona solicitante de la ayuda podrá optar a ambos programas. No obstante, la ayuda que le sea concedida tendrá por objeto, únicamente, el desarrollo de uno de ellos.

3.– El desarrollo del proyecto objeto de las ayudas se realizará, en todos los casos, en colaboración con las siguientes entidades:

a) Centros tecnológicos o de investigación de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación u otros centros tecnológicos o de investigación y universidades.

b) Empresas o agrupaciones sectoriales del ámbito agrario, alimentario o pesquero, radicadas en la Comunidad Autónoma del País Vasco, que deseen iniciar un proceso innovador, reforzar una línea innovadora ya existente o impulsar la creación de nuevas actividades innovadoras, todo ello en las áreas ya descritas anteriormente.

c) Empresas cuyo objeto sea el diseño y desarrollo de tecnologías de aplicación en el sector agrario, alimentario y pesquero vasco.

4.– Las personas beneficiarias de las ayudas deberán contar con un tutor o tutora que supervisará el desarrollo del proyecto de investigación, desarrollo tecnológico o innovación o en su caso la realización de la tesis doctoral y dirigirá las actividades a realizar por el beneficiario o beneficiaria.

Prestatzen ari diren ikertzaile gazteentzako laguntza-programan, proiektua egiteko aukeratutako zentrora atxikita dagoen eta proiektuaren ikerketa-taldeko kidea den edozein ikertzaile nahiz beste unibertsitate edo ikerketa-zentro bateko pertsona aintzatetsia izan daiteke onuradunaren zuzendaria edo tutorea. Laguntzari dagokion proiektua doktoregoa egiten ari den ez beste erakunde batean garatzen badu, bi tutore izango ditu kasu guztietan, bata proiektuan eta bestea unibertsitatean. Tutoreak doktore-titulua izan behar du nahitaez.

Teknologoak prestatzeko laguntzen programan, prestakuntza hori enpresa edo sektoreko talde batean eskaintzen bada, onuradunak enpresa edo taldeari atxikitako tutorea izango du; halaber, ikerketa- edo teknologia-zentro nahiz unibertsitateren batekoa den beste tutoreren bat eduki ahal izango du.

*2. artikulua.–* Prestatzen ari diren ikertzaile gazteentzako laguntza-programa.

1.– Programa honen helburua Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektorearekin erlazionatutako arloetan doktorego-tesiak egin daitezen bultzatzea da, betiere, arlo horietan doktore gutxi baldin badago eta, aurreikusitakoaren arabera, beharrezkoa bada Euskal Autonomia Erkidegoko egitura zientifiko-teknologikoan doktoreak barneratzea, ikerketa-talde desberdinak finkatzen joateko.

2.– Tesi-proiektua Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailaren iritziz estrategikoak eta lehentasunezkoak diren proiektuetakoren bati buruzkoa izango da. Horiek urteko deialdiaren aginduari dagokion eranskinean bilduko dira.

3.– Prestatzen ari diren ikertzaileen Estatutua onesten duen urtarrilaren 27ko 63/2006 Errege Dekretua bere aplikazio-eremuan dauden programa honetako onuradunei aplikatuko zaie, atxikipen-zentroan hasten denetik zenbatzen hasita. Programa honen berri Ikerketarako Laguntzen Programei buruzko Erregistro Orokorrari emango zaio.

*3. artikulua.–* Prestatzen ari diren teknologo gazteentzako laguntza-programa.

1.– Programa honen xedea teknikari espezializatuak prestatzea da, betiere, horiek etorkizunean sektoreko jarduerari (sektoreko enpresa eta elkarteen bidez) edota agente zientifiko eta teknologikoen jarduerari ekin badiezaiokete.

2.– Laguntza honen bidez garatu beharreko I+G+B proiektua Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailaren iritziz estrategikoak eta lehentasunezkoak diren proiektuetakoren bati buruzkoa izango da. Horiek urteko deialdiaren aginduari dagokion eranskinean bilduko dira.

En el Programa de ayudas a jóvenes investigadores en formación, podrá ser director o tutor del beneficiario o beneficiaria cualquier investigador con vinculación al centro de investigación en que se realiza el proyecto y que forme parte del equipo de investigación de dicho proyecto o persona reconocida de otra universidad o centro de investigación. En el caso de que el proyecto al que esté vinculada la ayuda se desarrolle en una entidad distinta a aquella en que desarrolle el doctorado, deberá en todo caso tener dos tutores, uno dentro del proyecto y otro dentro de la universidad. El tutor o tutora debe tener obligatoriamente la titulación de Doctor.

En el Programa de ayudas de Formación de Tecnólogos, cuando ésta se desarrolle en una empresa o agrupación sectorial, la persona beneficiaria contará con un tutor o tutora con vinculación a la empresa o agrupación sectorial, pudiendo contar, a su vez, con otro tutor perteneciente a un centro de investigación, tecnológico o universidad.

*Artículo 2.–* Programa de ayudas a jóvenes investigadores en formación.

1.– El objeto de este programa es incentivar la realización de tesis doctorales en aquellas áreas de investigación relacionadas con el sector agropesquero y alimentario vasco en las que exista una carencia de doctores y se observe una previsible necesidad de incorporación de los mismos a la estructura científico-tecnológica vasca, con la finalidad de ir consolidando los diferentes equipos de investigación.

2.– El proyecto de tesis versará sobre alguno de los proyectos considerados de carácter estratégico y prioritario por el Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación y que se recogerán en un anexo a la correspondiente Orden de convocatoria anual.

3.– El Real Decreto 63/2006, de 27 de enero, por el que se aprueba el Estatuto del personal investigador en formación será de aplicación para las personas beneficiarias de este programa, que queden dentro de su ámbito de aplicación, a partir de la fecha de incorporación al centro de adscripción. Este programa será comunicado al Registro General de Programas de Ayudas a la investigación.

*Artículo 3.–* Programa de ayudas de Formación de Jóvenes Tecnólogos.

1.– El objeto de este programa es la formación de personal técnico especializado que pueda ser incorporado en un futuro, bien en la actividad sectorial, a través de las empresas y asociaciones del sector, bien en la actividad de los agentes científico-tecnológicos.

2.– El proyecto de I+D+I a desarrollar durante el disfrute de esta ayuda versará sobre alguno de los proyectos considerados de carácter estratégico y prioritario por el Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación y que se recogerán en un anexo a la correspondiente Orden de convocatoria anual.

3.– Nahiz eta, hasiera batean, ikerketa eta garapen teknologikoko proiektuak nagusiki teknologia- edo ikerketa-zentroren batean gauzatuko diren eta ekoizpenaren teknologiei, merkatuei, marketing-ari eta enpresa-antolakuntzari buruzko arloetako berrikuntza-proiektuak nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreko enpresa edo elkarteetan, formula mistoak ere badaude proiektua agente zientifiko-teknologiko batek eta sektoreko enpresa edo elkarte batek elkarlanean garatzeko.

*4. artikulua.*– Baliabide ekonomikoak.

1.– Dekretu honetan aurreikusitako kopuruak itzuli behar ez diren diru-laguntzak izango dira.

2.– Dekretu honetan arautzen diren laguntzetarako jarritako baliabide ekonomikoak Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan xede horretarako berariaz ezarriko diren aurrekontu-kredituetatik hartuko dira.

3.– Artikulu honetan ezarritako guztizko zenbatekoa eta, beraz, baita laguntzen kopurua ere, aldatu egin daiteke; hain zuen ere, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailaren aurrekontuan agortu ez diren baliabideak erabilita eta horien gainean ebazpena eman baino lehen. Hala gertatuz gero, Teknologiaren Berrikuntza eta Garapeneko zuzendariaren ebazpen baten bidez jakinaraziko da.

*5. artikulua.*– Onuradunak.

1.– Laguntza eskatzen dutenek honako eskakizun hauek bete behar dituzte:

a) EAEn bizi den Europar Batasuneko herritarra edo atzerritarra izatea.

b) Euskal Autonomia Erkidegoan bizitzea. Ondorio horietarako, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriren batean erroldatuta egon behar da, gutxienez deialdia egiten den urteko urtarrilaren 1az geroztik. Hala ere, onartu egingo dira, baita ere, EAEn erroldatuta egonda, eskakizun hori betetzen ez dutenak, ikasketak egitera Erkidegotik kanpo joan behar izan dutelako.

c) Goi-mailako unibertsitate-titulua izatea prestatzen ari diren ikertzaile gazteentzako laguntzak eskuratzeko. Teknologoak prestatzeko laguntzak eskuratu ahal izango dituzte goi- edo erdi-mailako unibertsitate-titulua dutenek. Titulu guztiek ofizialki onartutakoetara homologatuta egon behar dute.

d) Titulu hori lortzeko ikasketak gehienez urteko deialdiaren agindua eman aurreko lau urteetan amaitu izatea. Ingeniari teknikoek eta goi-mailakoek karrera-amaierako proiektua gaindituta izan behar dute.

e) Teknologo gazteak prestatzeko laguntzei dagokienez, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailaren aldetik antzeko ezaugarriak dituen beste laguntzarik jaso ez izatea.

3.– Aunque en principio los proyectos de investigación y desarrollo tecnológico se realizarán principalmente en algún centro tecnológico o de investigación y los proyectos de innovación en las materias de tecnologías de la producción, mercados, marketing y organización empresarial, se desarrollarán en empresas o agrupaciones del sector agropesquero y alimentario, también se contemplan las fórmulas mixtas para el desarrollo del proyecto en colaboración entre un agente científico-tecnológico y una empresa o agrupación sectorial.

*Artículo 4.*– Recursos económicos.

1.– Las ayudas previstas en el presente Decreto tendrán la consideración de subvenciones no reintegrables.

2.– Los recursos económicos destinados a la concesión de las ayudas reguladas por el presente Decreto procederán de los correspondientes créditos presupuestarios establecidos al efecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

3.– El importe global consignado, y por lo tanto, el número de ayudas, podrá ser modificado en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas del Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación y con carácter previo a la resolución de las mismas. De dicha circunstancia se dará publicidad mediante Resolución del Director de Innovación y Desarrollo Tecnológico.

*Artículo 5.*– Personas beneficiarias.

1.– Los personas solicitantes de las ayudas deberán cumplir los siguientes requisitos:

a) Ser ciudadana de la Unión Europea o extranjero residente en la CAPV.

b) Residir en la Comunidad Autónoma del País Vasco. A estos efectos se exigirá estar empadronada en un municipio de la Comunidad Autónoma del País Vasco con antigüedad, al menos, desde el 1 de enero del año de la convocatoria. Se admitirán, no obstante, aquellas personas solicitantes que habiendo estado empadronadas en la CAPV no cumplan este requisito por motivos de la realización de estudios fuera de la Comunidad.

c) Estar en posesión de título universitario de grado superior para acceder a las ayudas a jóvenes investigadores en formación. Podrán disfrutar de las ayudas de Formación de Tecnólogos quienes estén en posesión de título universitario de grado superior o grado medio. Todas las titulaciones deberán estar homologadas a las oficialmente reconocidas.

d) Haber finalizado los estudios para obtener dicho título como máximo con cuatro años de anterioridad a la Orden de convocatoria anual o en fecha posterior. Los ingenieros técnicos y superiores deberán tener aprobado el proyecto de fin de carrera.

e) En el caso de ayudas de Formación de Jóvenes Tecnólogos, no haber disfrutado de otra de similares características del Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación.

f) Estatutik kanpo garatu beharreko laguntzetarako, eskatzaileak laguntza garatzeko zentroaren kokalekua den herrialdeko hizkuntza edo laguntza garatzeko beharrezko hizkera teknikoa behar bezala ezagutu behar ditu.

g) Ezin izango du diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten dituzten zehapen administratiborik edo penalik jasota izan, ezta horretarako legezko inolako debekurik izan ere, sexu-bereizkeriagatiko debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen amaierako seigarren xedapenean zehaztutakoarekin bat etorriz.

2.– Eskabideak aurkezteko epea bukatu baino lehen egiaztatu behar dituzte eskatzaileek artikulu honetan aipatzen diren eskakizunak.

*6. artikulua.–* Diru-laguntzen zenbatekoa.

1.– Prestatzen ari diren ikertzaile gazteentzako laguntzek eta teknologo gazteak prestatzeko laguntzek urtean diru-zenbateko finkoa izango dute. Zenbateko hori laguntzei buruzko urteko deialdiaren aginduan zehaztuko da, aurrekontuan xede horretara bideratzen diren baliabideen arabera.

2.– Bi laguntza-programa horien onuradunek, gainera, laguntza osagarria izango dute, gastua 15. artikuluan ezarri bezala justifikatuz gero. Horietako bakoitzean laguntza osagarri gisa urtero emango den gehienezko zenbatekoa ere urteko deialdiaren aginduetan finkatuko da. Laguntza osagarri hori, besteak beste, doktorego-ikastaroetan matrikulatu, kongresu zientifiko eta lan-jardunaldietan parte hartu, beste ikerketa- eta teknologia-zentro batzuetan egonaldi laburrak egin edota bestelako ikastaroetan parte hartzearen ondoriozko gastuei aurre egiteko erabiliko da, betiere, hori guztia tutore edo zuzendariarekin adostuta egin bada.

*7. artikulua.–* Aseguruak.

1.– Prestatzen ari diren ikertzaile gazteentzako laguntzei dagokienez, urtarrilaren 27ko 63/2006 Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz, Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean barneratu behar diren onuradunak bertan adierazitako moduan eta eran barneratuko dira.

2.– Aurreko puntuan jasotakoaren kaltetan izan gabe, onuradun guztiek laguntza medikoa, istripu-arriskuak eta erantzukizun zibila barneratzen dituen asegurako eskubidea izango dute, laguntza-modalitatea edozein dela ere.

*8. artikulua.–* Iraupena.

1.– Laguntzek ondoz ondoko lau urteko iraupena izango dute prestatzen ari diren ikertzaile gazteentzako laguntzei dagokienez, eta ondoz ondoko bi urtekoa edo urtebetekoa teknologo gazteak prestatzeko laguntzei dagokienez.

f) Para ayudas a desarrollar fuera del Estado, la persona solicitante deberá poseer un conocimiento suficiente del idioma del país donde radique el Centro de desarrollo de la ayuda o del idioma técnico necesario para desarrollar la misma.

g) No encontrarse sancionada penal ni administrativamente con la perdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni hallarse incursa en prohibición legal alguna que la inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por discriminación de sexo, de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Final Sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

2.– Las personas solicitantes de las ayudas deberán tener acreditados los requisitos a que se refiere este artículo a la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes.

*Artículo 6.–* Cuantía de las ayudas.

1.– Tanto las ayudas a jóvenes investigadores en formación como las ayudas de Formación de Jóvenes Tecnólogos tendrán una dotación económica fija anual que será establecida en la Orden anual de convocatoria de las ayudas en función de las disponibilidades presupuestarias establecidas para tal fin.

2.– Las personas beneficiarias de ambos Programas de ayudas disfrutarán, además, de una ayuda complementaria, previa justificación del gasto en los términos establecidos en el artículo 15, cuyo importe máximo anual a percibir por cada una se establecerá, igualmente, en las Órdenes anuales de convocatoria. Esta ayuda complementaria se destinará a sufragar los gastos de matriculación en cursos de doctorado, asistencia a congresos científicos y jornadas de trabajo, estancias cortas en otros centros de investigación y tecnológicos, otros cursos, etc., siempre y cuando la asistencia a los mismos se haya realizado de conformidad con el tutor o director.

*Artículo 7.–* Seguridad Social y seguros.

1.– En el caso de las ayudas a jóvenes investigadores en formación, de acuerdo a lo dispuesto en el Real Decreto 63/2006, de 27 de enero, las personas beneficiarias que deban ser incorporadas al Régimen General de la Seguridad Social, lo serán en los términos y la forma establecidos allí.

2.– Sin perjuicio de lo señalado en el punto anterior, todos los beneficiarios tendrán derecho a tener cubiertas la asistencia médica, los riesgos de accidente y la responsabilidad civil, independientemente de la modalidad de ayuda que disfruten.

*Artículo 8.–* Duración.

1.– Las ayudas tendrán una duración de cuatro años consecutivos, en el caso de las destinadas a jóvenes investigadores en formación, y de dos años consecutivos o uno, en el caso de las de Formación de Jóvenes Tecnólogos.

Onuradunak 15. artikuluko lehenengo idatz-zatiko c) letran ezarritako betebeharra beteko ez balu edo Teknologiaren Berrikuntza eta Garapeneko zuzendariak, proiektua nola doan ikusteko urteroko jarraipen eta ebaluazioa egiterakoan, aurreikusitakoarekin bat etorriz garatzen ari ez dela antzemango balu, kasuan kasuko espedientea bideratu eta interesdunari entzun ondoren, laguntza itzultzeko eskatuko du eta baliogabetu egingo du, laguntzaz gozatzeko geratzen denboraldian, Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onesten duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 53. artikuluan eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz.

2.– Nolanahi ere, laguntza emateko ebazpenean adieraziko da noiz hasiko den onuraduna emandako bekaz baliatzen. Dena dela, Teknologiaren Berrikuntza eta Garapeneko zuzendariak data hori atzeratu ahal izango du, baldin eta behar bezala arrazoituta eskatzen bada. Atzerapen hori, baina, hiru hilabetekoa izan daiteke gehienez.

*9. artikulua.*– Burutzeko epea eta deialdia.

1.– Urtero, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuak hala aginduta, eskabideak aurkezteko epea zabalduko da.

2.– Deialdiaren aginduan, besteak beste, ondorengo alderdi hauek zehaztuko dira:

a) Aurrekontu-kreditu erabilgarria.

b) Deialdiaren bidez eskaintzen diren laguntzen kopurua eta horien zenbatekoa.

c) Deialdi horretan ikertzaile eta teknologo gazteak prestatzeko Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailaren ustez estrategikoak eta lehentasunezkoak diren I+G+B jarduera-proiektuen zerrenda biltzen duen eranskina.

d) Deialdi horretarako eskabide-eredu normalizatua jasotzen duen eranskina.

*10. artikulua.*– Eskabideak eta erantsi beharreko agiriak.

1.– Laguntza-eskaerak inprimaki bidez egingo dira, urteko deialdiaren aginduaren eranskinean jasoko den eredu normalizatuaren arabera.

Eskabidearekin batera, urteko deialdiaren aginduan ezar daitekeen beste edozein agiriz gain, honako agiri hauek ere aurkeztuko dira:

a) Ziurtagiri akademiko osoa (jatorrizkoa zein konpultsaturiko fotokopia); bertan, beka-eskatzaileak lortutako kalifikazio guztiak eta lortu zireneko datak egiaztatuko dira.

b) Curriculum vitae, eta alegatutako merezimenduen egiaztagiriak. Agiri hauen guztien bina kopia aurkeztuko dira.

En el supuesto de que la persona beneficiaria incumpliere la obligación establecida en la letra c) del apartado primero del artículo 15 o la Dirección de Innovación y Desarrollo Tecnológico, en el seguimiento y evaluación anual del desarrollo del proyecto, constatase que no se está realizando conforme a lo previsto, procederá, previa substanciación del oportuno expediente con audiencia del interesado, el reintegro de la ayuda y la revocación de la misma por el tiempo que resta de disfrute de la misma, conforme a lo dispuesto en el artículo 53 del Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco y en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre.

2.– En todo caso, la fecha de inicio de disfrute de la ayuda será la que se indique en la Resolución de concesión. No obstante, el Director de Innovación y Desarrollo Tecnológico podrá conceder un aplazamiento de la incorporación, previa solicitud justificada, por un periodo no podrá superior a tres meses.

*Artículo 9.*– Plazo y convocatoria.

1.– Anualmente, por Orden del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación se abrirá el plazo de presentación de solicitudes.

2.– En la Orden de convocatoria se deberán establecer, entre otros extremos, los siguientes contenidos:

a) Crédito presupuestario disponible.

b) Número de ayudas que se convocan y dotación de las mismas.

c) Anexo en el que se recoja para dicha convocatoria la relación de proyectos de actuación I+D+I considerados de carácter estratégico y prioritario por el Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación para la formación de jóvenes investigadores y tecnólogos.

d) Anexo en el que se recoja para dicha convocatoria el modelo normalizado de solicitud.

*Artículo 10.*– Presentación de solicitudes y documentación a adjuntar.

1.– Las solicitudes de ayuda se presentarán mediante instancia, según el modelo normalizado que se incorporará como anexo a la Orden de convocatoria anual.

A la solicitud se acompañará, sin perjuicio de la exigencia de otra documentación que, en su caso, se establezca en la Orden de convocatoria anual, la siguiente documentación:

a) Certificado académico completo (original o fotocopia compulsada) en el que se acrediten todas las calificaciones del candidato, así como las fechas de obtención de las mismas.

b) Curriculum Vitae acompañado de los justificantes y/o comprobantes que verifiquen los méritos alegados. Esta documentación se aportará por duplicado.

c) Nortasun-agiri nazionalaren fotokopia.

d) Errolda-ziurtagiria, Dekretuaren 5. artikuluko lehen idatz-zatiaren b) letran ezarritakoa betetzen dela egiaztatzeko.

e) Jarduera-proiektuaren aukeraketa justifikatzen duen memoria laburra (gehienez ere 5 orrialde), kasu bakoitzean gaiari buruzko ezagutza azalduz eta aukeratutako gairako profil akademiko eta profesional egokia duela erakusten duten merezimendu pertsonalak argudiatuz. Agiri hauen guztien bina kopia aurkeztuko dira.

f) «Hirugarrenen kodean alta emateko» agiriaren inprimaki ofiziala, behar bezala beteta, dekretu honen III. eranskinean jasotako eredu normalizatuarekin bat etorriz.

g) Gizarte Segurantzarako afiliazio-agiriaren fotokopia.

2.– Aurreko idatz-zatian aipatu diren eskabideak eta agiriak honako helbide honetara bidaliko dira:

Teknologiaren Berrikuntza eta Garapeneko Zuzendaritza
Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila
Eusko Jaurlaritza
Donostia kalea, 1
01010 Vitoria-Gasteiz

Bertara eraman ditzakete eskabidea eta agiriak, edo bestela bidali egin ditzakete, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako bideetatik.

3.– Eskabideak eta aurkeztu beharreko gainerako agiriak aztertzean akats edo hutsuneren bat dutela ikusten bada, eskatzaileari jakinaraziko zaio, hamar egun balioduneko epea emango zaio behar den zuzenketa egiteko, jakinarazpena jasotzen duen egunaren biharamunetik aurrera, eta ohartaraziko zaio hala egiten ez badu eskabidea bertan behera utzi duela ulertuko dela, aurretik Teknologiaren Berrikuntza eta Garapeneko zuzendariak ebazpena emanda, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. artikuluan ezarritako moduan.

4.– Teknologiaren Berrikuntza eta Garapeneko Zuzendaritzari dagokio dekretu honetako laguntzak kudeatzeko ardura; horregatik, eskatzaileei nahi beste agiri edota informazio eskatu ahal izango die eskabideak ondo ulertu eta ebaluatu ahal izateko.

*11. artikulua.*– Ebaluazioa.

1.– Dekretu honetan jasotako laguntzak lehiaketa bidez emango dira, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren 51.4. artikuluaren arabera (dekretu horren

c) Fotocopia del Documento Nacional de Identidad.

d) Certificado de empadronamiento en el que se acredite el cumplimiento de lo dispuesto en la letra b) del apartado primero del artículo 5 del Decreto.

e) Breve memoria justificativa (máximo 5 páginas) de la elección de los proyectos de actuación, exponiendo en cada caso los conocimientos que del tema se posean y alegando los méritos personales que justifiquen la adecuación de su perfil académico y profesional al tema elegido. Esta documentación se aportará por duplicado.

f) Impreso oficial debidamente cumplimentado del documento denominado «Alta en el Código de Tercero», conforme al modelo normalizado que figura en el anexo III al presente Decreto.

g) Fotocopia del documento de afiliación a la Seguridad Social.

2.– Las instancias de solicitud y la documentación indicada en el apartado anterior, se remitirán a la siguiente dirección:

Dirección de Innovación y Desarrollo Tecnológico

Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación
Gobierno Vasco
Calle Donostia-San Sebastián, n.º 1
01010 Vitoria-Gasteiz

Debiendo presentarla en la misma directamente o por cualesquiera de los medios previstos en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

3.– En el supuesto de que analizada la solicitud y demás documentación requerida se observase la existencia de algún defecto o fuese incompleta, se pondrá en conocimiento del solicitante dicha circunstancia, otorgándose un plazo de diez días hábiles, a contar desde el día siguiente a la recepción de la notificación correspondiente, para su subsanación, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, previa Resolución del Director de Innovación y Desarrollo Tecnológico, dictada en los términos previstos en el artículo 42 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Régimen Administrativo Común.

4.– La Dirección de Innovación y Desarrollo Tecnológico, a quien corresponderá la realización de las tareas de gestión de las ayudas previstas en el presente Decreto, podrá requerir al solicitante cuanta documentación y/o información complementaria estime necesaria para la adecuada comprensión y evaluación de la solicitud presentada.

*Artículo 11.*– Evaluación.

1.– Las ayudas contempladas en el presente Decreto se concederán mediante el procedimiento de concurso, conforme al artículo 51.4 del Decreto Legislativo

bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onesten da).

2.– Hautaketa Batzordea eratuko da eta hau izango da eskabideak aztertu eta ebaluatzeaz arduratuko den kide anitzeko organoa. Batzorde hori, gutxienez hiru kidekoa izango dena, honakoek osatuko dute:

a) Teknologiaren Berrikuntza eta Garapeneko zuzendariak izendatuko dituen Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saileko bi teknikari, eta sail bereko abokatu bat, idazkari gisa jardungo duena. Horiek guztiek hitza eta botoa izango dute.

b) Teknologiaren Berrikuntza eta Garapeneko zuzendariak aipatutako gaietarako hautagaiak ebaluatzeko Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailaren ustez estrategikoak eta lehentasunezkoak diren proiektuen arlo zehatzetan adituak diren bi pertsona izendatu ahal izango ditu Batzordeko kide gisa. Horiek hitza izango dute baina botorik ez. Kide horiek laguntzaren arlo zehatzaren eta/edo laguntza-modalitatearen arabera desberdinak izan ahal izango dira.

3.– Hautaketa Batzordeak, bidezko ikusten dituen jarduerak bere arioz burutu ondoren, eta laguntza-modalitate baterako eta besterako hautagaiak aukeratu ondoren, ebazpen-proposamena egingo du idatziz. Ebazpen-proposamen hori Teknologiaren Berrikuntza eta Garapeneko zuzendariari igorriko zaio laguntzaren organo emaile gisa.

*12. artikulua.–* Ebaluazio-irizpideak.

Hautaketa Batzordeak proiektu bakoitzerako hautagaien egokitzapena baloratuko du beherago zehazten diren irizpideei jarraiki. Aipatu balorazioa bi fasetan egingo da:

1. fasea.– Merezimenduen balorazioa.

Gehienez ere, 15 puntu emango dira. Hurrengo hautaketa-fasera proiektu bakoitzerako lehenengo 10 postuak betetzen dituztenak pasatuko dira, lehenengo fase honetan lortutako lehentasun-ordenaren arabera.

Merezimenduak dagokien ziurtagirien bitartez egiaztatu behar dira. Honako baremo honen arabera baloratuko dira:

a) Espediente akademikoa: gehienez 4 puntu, honela banatuta:

– Gainditua: 1.

– Oso ondo: 2.

– Bikain: 3.

– Ohorezko matrikula: 4.

b) EBko beste hizkuntza batzuen ezagutza: guztira, gehienez, 2,5 puntu, ondorengo baremoari jarraiki (hizkuntza bakoitzeko):

1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

2.– Se constituirá una Comisión de Selección, que será el órgano colegiado encargado del análisis y la evaluación de las solicitudes. Dicha Comisión, que tendrá un número mínimo de tres miembros, estará integrada por:

a) Dos técnicos del Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación, designados por el Director de Innovación y Desarrollo Tecnológico, y un letrado o letrada del mismo Departamento que actuará como secretario. Todos ellos tendrán voz y voto.

b) El Director de Innovación y Desarrollo Tecnológico podrá designar como miembros de la Comisión con voz pero sin voto a un máximo de dos personas expertas en las materias específicas de los proyectos considerados de carácter estratégico y prioritario por el Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación para la evaluación de las personas candidatas a dichos temas. Estos miembros podrán ser distintos en función de la modalidad y/o materia específica de la ayuda.

3.– La Comisión de Selección, tras realizar de oficio cuantas actuaciones estimare pertinentes para ello, redactará una propuesta de resolución seleccionando a aquellos candidatos y candidatas de una y otra modalidad de ayuda. Dicha propuesta de resolución irá dirigida al Director de Innovación y Desarrollo Tecnológico como órgano concedente de la ayuda.

*Artículo 12.–* Criterios de evaluación.

La Comisión de Selección valorará la adecuación de las personas candidatas para cada una de los proyectos de acuerdo a los criterios que se especifican más abajo. Dicha valoración se efectuará en dos fases:

1.ª fase.– Valoración de méritos.

Se valorará con un máximo de 15 puntos. Pasarán a la siguiente fase de la selección las personas que ocupen los 10 primeros puestos para cada una de lo proyectos según el orden de prelación obtenido en esta primera fase.

Los méritos, que deberán ser acreditados mediante las correspondientes certificaciones, se valorarán según el siguiente baremo:

a) Expediente académico, con un máximo de 4 puntos, de acuerdo a la siguiente distribución:

– Aprobado: 1.

– Notable: 2.

– Sobresaliente: 3.

– Matrícula de honor: 4.

b) Conocimiento de otros idiomas de la UE, hasta un máximo de 2,5 puntos (en total) con arreglo al siguiente baremo (por idioma):

– Hizkuntza Eskola Ofizialeko oinarrizko zikloa eta titulu baliokideak: 0,6.

– Hizkuntza Eskola Ofizialeko goiko zikloa eta titulu baliokideak: 1.

– Alegatutako atzerriko hizkuntzan gutxienez ikasturte bat egin izatea: 0,75.

– EBko unibertsitateetan hiru hilabete baino gehiagoko egonaldiak: 0,25.

c) Euskararen ezagutza: gehienez puntu bat, ondorengo banaketaren arabera :

– Batxilergoko ikasketak euskaraz egin izatea: 0,25.

– Unibertsitateko ikasketak euskaraz egin izatea: 1.

– EGA izatea edo Hizkuntza Eskola Ofizialeko goiko zikloa egina izatea: 1.

– Hizkuntza Eskola Ofizialeko oinarrizko zikloa: 0,6.

d) Eskatzailearen curriculuma eta laguntzaren xede den gaira egokitzea. Gehienez ere, 7,5 puntu emango dira, honakoak egiaztatuz gero:

– Unibertsitateko ikasketekin erlazionatutako gaien espezializazio-ikastaroak egin izatea: gehienez 2 puntu. 20 ordu baino gehiagoko master edo ikastaro bakoitzeko puntu bat emango da. Horretarako, unibertsitateko hirugarren zikloko ikastaroak ere baloratuko dira.

– Laguntzaren xede den gaiarekin lotuta dagoen bigarren unibertsitate-titulu bat izateagatik puntu bat emango da.

– Praktikak: gehienez ere 3 puntu, ondoko baremo honen arabera:

• Unibertsitatean edo/eta Zientzia eta Teknologiako Euskal Sarean sartuta dagoen edozein teknologiazentrotan egindako praktikak egiteagatik gehienez 2 puntu emango dira. Gutxienez hilabete bateko praktikak egin direla ziurtatzen denean emango dira puntuak.

• Nekazaritza, abeltzaintza, basozaintza, arrantza eta elikaduraren arloko enpresetan praktikak egin izatea baloratuko da: gehienez puntu bat. Gutxienez hilabete bateko praktikak egin direla ziurtatzen denean emango dira puntuak.

– Zientzia-argitalpenetan parte hartu eta/edo proiektuaren xedearekin lotutako gaiei buruzko kongresuetara joan izana: gehienez 1,5 puntu, honako baremo honen arabera:

• Argitalpenak: 0,75.

• Kongresuetarako komunikazioak: 0,5.

• Kongresuetara joatea: 0,25.

2. fasea.– Elkarrizketa.

Laguntza bakoitzerako ateratzen diren hamar hautagaiei elkarrizketa egingo zaie; elkarrizketa horretan hautagaiaren profila ikerketa-proiektuaren xedera ego-

– Ciclo elemental de la Escuela Oficial de Idiomas y títulos equivalentes: 0,6.

– Ciclo superior de la Escuela Oficial de Idiomas y títulos equivalentes: 1.

– Haber realizado al menos un curso académico en el idioma extranjero alegado: 0,75.

– Estancias de más de tres meses en centros universitarios de la UE: 0,25.

c) Conocimiento del euskera, con un máximo de 1 punto con arreglo a la siguiente distribución:

– Estudios de bachiller en euskera: 0,25.

– Estudios universitarios en euskera: 1.

– Título EGA o Ciclo superior de la Escuela Oficial de Idiomas: 1.

– Ciclo elemental de la Escuela Oficial de Idiomas: 0,6.

d) El currículum de la persona solicitante y su adecuación al tema objeto de la ayuda. Se valorará, hasta un máximo de 7,5 puntos la acreditación de:

– Realización de cursos de especialización de temas relacionados con los estudios universitarios, hasta un máximo de 2 puntos. Cada master o curso de más de 20 horas se valorará con 1 punto. A estos efectos, se valorarán asimismo los cursos de tercer ciclo universitario.

– Estar en posesión de un segundo título universitario relacionado también con el tema objeto de la ayuda, se valorará con 1 punto.

– Realización de prácticas, hasta un máximo de 3 puntos, de acuerdo al siguiente baremo:

• Se valorará la realización de prácticas en la Universidad y/o en cualquiera de los centros tecnológicos incluidos en la Red Vasca de Ciencia y Tecnología con un máximo de 2 puntos. Se puntuarán siempre que se acredite un mínimo de 1 mes de prácticas.

• Se valorará la realización de prácticas en empresas de los ámbitos agrícola, ganadero, forestal, pesquero y alimentario hasta un máximo de 1 punto. Se puntuarán siempre que se acredite un mínimo de un mes de prácticas.

– Participación en publicaciones científicas y/o asistencias a congresos en temas relacionados con el objeto del proyecto, hasta un máximo de 1,5 puntos, según el siguiente baremo:

• Publicaciones: 0,75.

• Comunicaciones a congresos: 0,5.

• Asistencia a congresos: 0,25.

2.ª fase.– Entrevista.

Los diez candidatos resultantes para cada una de las ayudas serán sometidos a una entrevista en la que se estudiará la adecuación del perfil del candidato al objeto

kitzen den aztertuko da eta gehienez 15 punturekin aukeratuko da, honako irizpideen arabera:

– Diru-laguntzaren xede den gaiaren ezagutza: gehienez 10 puntu.

– Trebetasunak eta gaitasuna dituela erakustea: gehienez 5 puntu.

Bi fase horiek amaitu ostean, gutxienez 10 puntu lortzen dituztenek gaindituko dute hautaketa-prozesua; hortik aurrera, Hautaketa Batzordeak hautagaien artean lehentasun-ordena ezarriko du.

*13. artikulua.–* Ebazpena.

1.– Hautagaien ebaluazioaren ondorioz eta Hautaketa Batzordeak aurkeztutako ebazpen-proposamena ikusita, Teknologiaren Berrikuntza eta Garapeneko zuzendariaren Ebazpenaren bidez, deialdiaren agindua argitaratu eta hurrengo egunetik hasita sei hilabeteko epean puntu gehien lortu dituztenei laguntzak esleituko zaizkie. Epe hori pasatutakoan ez bada ebazpenik jakinarazi, eskabidea gaitzetsi egin dela ulertuko da, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako; dena den, Administrazioa ez da berariazko erabakia emateko betebeharretik salbuetsiko.

2.– Balorazio Batzordeak egindako ebazpen-proposamena loteslea izan ez arren, hortik ateratzen den laguntza emateko Ebazpenak erabakia indartu behar izango du.

3.– Laguntzak esleitzeko ebazpenean programa bakoitzerako eta dagokien puntuekin laguntza esleitu zaien hautagaien zerrenda, laguntza ukatu edo onartzen ez den kasuetarako ordezkoen zerrenda eta baita baztertutako eskabideen zerrenda eta baztertzea eragin duten arrazoiak ere adieraziko dira.

Laguntzaren bat esleitu gabe geratuz gero, edo deitutako laguntzetan aldaketaren bat gertatuz gero, Teknologiaren Berrikuntza eta Garapeneko Zuzendaritzak laguntza-programa horien deialdia bultzatzen duen asmoaren barruan egokiak irizten dituen erabakiak hartzeko eskubidea izango du.

4.– Laguntza esleitzeko Ebazpena hautagai guztiei jakinaraziko zaie. Jakinarazpen horren kaltetan izan gabe eta argitaratzeko, Teknologiaren Berrikuntza eta Garapeneko zuzendariaren ebazpen bidez, hemen arautatako laguntzen onuradunen zerrenda argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

5.– Lehenengo idatz-zatian adierazitakoa alde batera utziz, dekretu honetako 10. artikuluko hirugarren idatz-zatian aurreikusitakoa ezarri behar denean, ebazpena emateko epea luzatu egingo da, izapidea egiteko

del proyecto de investigación seleccionado con un máximo de 15 puntos, de acuerdo a los siguientes criterios:

– Conocimiento del tema objeto de la ayuda: hasta 10 puntos.

– Demostración de aptitudes y disposición: hasta 5 puntos.

Concluidas ambas fases, superarán el proceso selectivo aquellas personas que obtengan una puntuación mínima de 10, a partir de la cual la Comisión de Selección establecerá un orden de prelación entre las personas candidatas.

*Artículo 13.–* Resolución.

1.– Como resultado de la evaluación de los candidatos y candidatas y a la vista de la propuesta de resolución elevada por la Comisión de Selección, mediante Resolución del Director de Innovación y Desarrollo Tecnológico, en el plazo máximo de seis meses a contar desde el día siguiente al de la publicación de la Orden de Convocatoria, se adjudicarán las ayudas a los quienes hubieren obtenido mayor puntuación. Transcurrido dicho plazo sin notificación de la Resolución, la solicitud se podrá entender desestimada a los efectos previstos en el artículo 44 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, sin perjuicio de la obligación de resolver expresamente de la Administración.

2.– Aún cuando la propuesta de resolución emitida por la Comisión de Valoración no tendrá carácter vinculante, la Resolución de concesión que se aparte de ella deberá motivar dicha decisión.

3.– En la Resolución de adjudicación de ayudas se identificará, para cada uno de los Programas y con la puntuación correspondiente, la relación de candidatos y candidatas a los que se les ha concedido la ayuda, la relación de suplentes para los casos de renuncia o no aceptación de aquélla, así como la relación de solicitantes excluidos y las causas que han motivado dicha exclusión.

En el caso de declararse desierta la concesión de alguna ayuda, o producirse alteraciones en las ayudas convocadas, la Dirección de Innovación y Desarrollo Tecnológico se reserva el derecho a adoptar las decisiones que juzgue convenientes dentro del espíritu que anima la convocatoria de estos programas de ayudas.

4.– La Resolución de adjudicación de ayuda será notificada a cada una de las personas candidatas. Sin perjuicio de dicha notificación y a efectos de publicidad, por Resolución del Director de Innovación y Desarrollo Tecnológico, se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco la relación de personas beneficiarias de las ayudas aquí reguladas.

5.– No obstante lo dispuesto en el apartado primero, cuando fuere de aplicación lo previsto en el apartado tercero del artículo 10 del presente Decreto, el plazo para resolver se suspenderá por el tiempo que aquel

behar beste, jakinarazpena jasotzearen eta erantzuteko epearen arabera.

6.– Teknologiaren Berrikuntza eta Garapeneko zuzendariak laguntza emateko edo ukatzeko emandako ebazpenaren aurka interesdunak gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango dio Nekazaritza eta Landa Garapeneko sailburuordeari eta horretarako hilabeteko epea izango du ebazpenaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera edo hiru hilabeteko epea administrazio-isiltasunak ondorioak izan eta biharamunetik aurrera, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz.

*14. artikulua.–* Onarpena.

1.– Laguntza esleitu zaiola jakin eta hurrengo hamabost eguneko epearen barruan, hautatuek honako agiri hauek aurkeztu behar dituzte Teknologiaren Berrikuntza eta Garapeneko Zuzendaritzan:

a) Laguntza onartu dela egiaztatzen duen agiria.

b) Laguntzaren onuradunaren onarpena ziurtatzen duen agiria onuradunaren garapen-zentroan, ikerketa-zentroko, enpresako edo sektoreko taldeko zuzendariak edo arduradunak sinatuta.

c) Dekretu honen 18. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, hautagaiak lan ordaindurik egiten ez duela eta beste laguntzarik jasotzen ez duela adierazten duen zinpeko aitorpena.

